

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure enpresa proiektua funtzionatzeko, beharrezkoa da bazkide eta hornitzaile nagusien harreman indartsu bat izatea, negozio eredua hobetzeko, arriskuak murrizteko eta beharrezko baliabideak eskuratzeko.

Alde batetik, teknologia eta ingeniariaritzaren arloko bazkideak izango ditugu. Haiek arduratuko dira pultxeraren barruko sentore sistema eta norabidea adierazten duten gezien mekanismoa garatzeaz. Bazkide hauek funtsezkoak dira produktuaren funtzionamendu teknikoa bermatzeko eta arrisku teknologikoak murrizteko.

Bestetik, diseinu industrialeko bazkideak izango ditugu, pultxeraren diseinu estetikoak eta pertsonalizazio aukerak garatzeko. Haien lana garrantzitsua da produktua erakargarri bihurtzeko eta lehiakideengandik bereizteko, pertsonalizazioa gure balio proposamenaren oinarria baita.

Era berean, fabrikazio eta hornitzaile industrialak beharrezkoak izango dira pultxeraren ekoizpenerako eta lehen stocka prestatzeko. Haien bidez, ekoizpen-kostuak kontrolatuko dira eta kalitatea bermatuko da.

Logistika eta banaketa enpresek produktuak bezeroengana azkar eta erraz iritsaraziko dituzte, batez ere online salmenten kasuan. Horrek bezeroaren esperientzia ona ziurtatzen du.

Horrez gain, marketin agentziek eta festibaletako antolatzaileek produktuaren sustapena egingo dute, publizitate kanpainen eta ekitaldietako presentziaren bidez, gure publiko nagusiarengana iristeko.

Azkenik, online salmenta plataformek, hala nola Amazon edo gure webgune propioak, produktua merkatu zabalago batera zabaltzea ahalbidetuko dute.